

- Esleipenak egiteko moduak eta prozedurak: publikitatearekin negoziatua.

5.- Lizitazio-mota gehien jota (BEZik gabe): 361.910 euro.

6.- Esleipenaren oinarri izango diren irizpideak: plegua ikusi.

7.- Behin-behineko bermea: ez dago.

- Behin betiko bermea: kontratua esleitzeko zenbatekoaren %5, BEZik gabe.

8.- Agiriak eta informazioa lortzeko:

- Entitatea: Zuiako Udala (Udaletxeko Plaza 1. zk., Murgian, 945430005 telefonoa eta 945430366 faxa, eta Sistemas Arco Kopisteria (San Antonio kaleko 16. zk., Vitoria-Gasteiz).

- Agiriak eta informazioa eskuratzeko epemuga: proposamenak aurkezteko azken egunera arte, jendeari arreta egiteko ordutegian.

9.- Kontratataren baldintza espezifikoak: Sailkapena

Taldea Azpitaldea Categoria

C 2 c

C 6 d

J 2 d

10.- Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkezteko: 15 egun natural iragarki hau argitaratzen denetik. Azken eguna larunbata bada, hurrengo lan-eguna izango da.

- Postaz bidaltzeko: administrazio-baldintza partikularren pleguaren 13. baldintzak finkatzen dituen baldintzen arabera.

- Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio-baldintza partikularren pleguan agertzen direnak.

- Non aurkeztu: Zuiako udalaren Erregistroan.

11.- Eskaintzak irekitzeko:

- Entitatea: Zuiako Udala, Bilkuren Aretoa.

- Eguna: eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo ostiralean (lan-egun bada).

- Ordua: 9:00etan.

12.- Beste argibide batzuk:

- Iragarkiaren gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Murgian, bi mila eta bederatziko otsailaren hogeita hiruan.- Alkate-Presidentea, FRANCISCO GOIKOETXEA BURUTZAGA.

- Procedimiento y forma adjudicación: negociado con publicidad.

5.- Tipo máximo licitación (IVA excluido): 361.910 euros.

6.- Criterios que han de servir de base para la adjudicación: ver pliego.

7.- Garantía provisional: no se exige.

- Garantía definitiva: 5% del importe de adjudicación del contrato IVA excluido.

8.- Obtención de documentación e información:

- Entidad: Ayuntamiento de Zuia (Plaza del Ayuntamiento nº 1 en Murgia, Tfno. 945430005 y Fax: 945430366) y Copistería Sistemas Arco (C/San Antonio nº 16 de Vitoria-Gasteiz).

- Fecha límite de obtención de documentos e información: hasta último día de presentación de proposiciones, en horario de atención al público.

9.- Requisitos específicos del contratista: Clasificación

Grupo Subgrupo Categoría

C 2 c

C 6 d

J 2 d

10.- Presentación de ofertas o de las solicitudes de participación: 15 días naturales a partir de la publicación del presente anuncio. Si el último día fuera sábado se trasladará al siguiente día hábil.

- Envío por correo: en las condiciones establecidas en la cláusula 13 del pliego de cláusulas administrativas particulares.

- Documentación a presentar: la que consta en el pliego de cláusulas administrativas particulares.

- Lugar de presentación: Registro del Ayuntamiento de Zuia.

11.- Apertura de las ofertas:

- Entidad: Ayuntamiento de Zuia, Sala de Reuniones.

- Fecha: viernes siguiente hábil a la finalización del plazo de presentación de ofertas.

- Hora: 9:00 horas.

12.- Otras informaciones:

- Gastos de anuncios: por cuenta del adjudicatario.

En Murgia a veintitres de febrero de dos mil nueve.- El Alcalde-Presidente, FRANCISCO GOIKOETXEA BURUTZAGA.



BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

OTRAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS



Euskadiko Administrazioak

Administraciones Vascas

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

1555

1555

Agindua, 2009ko otsailaren 19koa, Kultura sailburuarena, Laudioko (Araba) Goikoetxe baserria, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Orden de 19 de febrero de 2009, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el caserío Goikoetxe, sito en Llodio (Álava) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Euskal autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16. eta Estatutuaren 10.19. artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretaz oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duen Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituen.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que regula los procedimientos de declaración de los bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2007ko abuztuaren 9an, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen Ebazpena eman zen. Ebazpen honen bidez, Laudioko (Araba) Goikoetxe baserriak, aurkeztu zuen balio kulturala eta indarrean dagoela legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del caserío Goikoetxe, sito en Llodio (Álava), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 9 de agosto

sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2007ko irailaren 4ko 170. z.ka duen EHAA n argitaratua izan zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espedientearen jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3. artikuluetan eta artikuluko horiek in erlazioatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Informazioa jendaurrean jartzeko eta interesdunei entzuteko izapidea egin ondoren, Juan A. Báscones Urdampilletak, Guardian Llodio Uno SL merkataritza-sozietatearen izenean, alegazio-idazkia aurkeztu zuen.

Hona zertan datzan Guardian Llodio Uno SLren alegazioa:

1.- Espedientearen jatorriz, partikular batek Kultura Ondarearen Zentroa bidalitako eskutitzak eraginda hasi zen, bertan, aurrekari pertsonal batzuek gainera, onartu ezin diren adierazpen eta baieztapen zehaztugabe batzuk azaldu baitzituen.

2.- Baserriaren balorazio-txostean higiezinaren oraingo egoerari buruzko xehetasun zehatzagoak falta dira. Esate baterako, ez da esaten egiturazko elementuetatik zein ehuneko ordeztu beharko litzatekeen, ezta ere zein proportzio dagoen konponketa edo eraberritzeen eta higiezinaren gaur egungo birjartze-balioaren artean.

3.- Mugatutako lurzuaren geroko erabilera enklabe bat sortuko du, «Camino Viejos» bidean titularitate pribatuko lurzuaren arteko jarraitasunean. Lurzoru horiek gaur egun industria-erabilera hiri-lurtzat sailkatuta daudenez, baserria berariazko antolamenduaren araubidetik kanpo dago. Hala ere, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Berrikusketaren Aurrerakinaren arabera, bizitegiarako hiritar ez-finkatutzat sailkatuko lirateke, 345 etxebizitza egiteko gai alegia. Horretaz gainera, bide berri bat aurreikusten da trenbidearen ondoan, eta planeatuta dago ibai ondoko oraingo bidea bihurtzea oinezkoen lehenetsuneko kale edo ibai-pasealeku. Jarduketa hauek baldintzatuta egon daitezke, eta horregatik eskatzen da, edozein jarduketa egin aurretik, bai Berrikusketaren egileak bai Udala bera jakinaren gainean egon daitezkeen eta esku har dezaten.

Alegazioen argitan, espedienteko txosten teknikoak bigarren alegazioaren arrazoibideekin osatzea eskatzen da, bai eta hirugarren alegazioari jaramon eginez beharrezkoak diren neurri eta jarduketek in ekin dakiela ere.

Alegazioen aurrean esan beharra dago ezen, espedientearen jatorriaz bezainbatean, edozein herritarrek zilegi duela Administrazio Publikoaren aurrean kultura ondarearen defentsan jarduteko, Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen 3. artikuluko 2. paragrafoak ezarritakoari jarraiki.

Higiezinaren oraingo egoerari buruzko xehetasun zehatzagoak behar direla eta egiturazko elementuetatik zein ordeztu, konpondu edo zaharberritu beharko litzatekeen zehaztea falta dela dioen alegazioaren aurrean, esan beharra dago balorazio-txostena nahikoa dela eta ez duela bere helburua iristeko xehetasun gehiagoren beharrik, alegia, txostenak higiezina kulturaren ikuspegitik baloratzea duela xede bakarra. Beraz, ez da txostenaren helburua, eta ez dagokio espediente honi, higiezinaren egoera fisikoa edo egiturazkoa definitzea. Alde horretatik, txosten hau normalean egin ohi direnak baino zehatzagoa da.

Bestalde, lurzuaren geroko erabilera direla eta, esan behar da baserria ez zegoela berariazko antolamenduaren araubidetik kanpo espedientearen hasi zenean, Audioko udalean eginiko kontsultan jakin ahal izan dugunez, eta, gainera, alegazio-egileak ere ez du aurkeztu bere arrazoibidea funtsatzen duen inongo dokumenturik. Dena den, gorabehera hori ez da munta handikoa, ezta erabakigarria ere higiezin baten kultura-babesari ekiteko edo ez. Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Berrikusketaren Aurrerakinari dagokionez, dokumentu horrek ez du inolako arautze-indarrik, aurrerakin bat besterik ez baita. Audioko etorkizuneko Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak higiezinari eta haren inguruneari emandako babesaren kontuan hartuta egokitu

de 2007, publicada en BOPV nº 170, de 4 de septiembre, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también, se concedió audiencia a los interesados.

Abierto el trámite de información pública y audiencia a los interesados, Juan A. Báscones Urdampilleta, en nombre de la mercantil Guardian Llodio Uno, S.L., presentó escrito de alegaciones.

Guardian Llodio Uno, S.L. alega lo siguiente:

1.- Que el origen del expediente se incoa con motivo de la carta que un particular dirige al Centro de Patrimonio Cultural, en la que expone una serie de antecedentes de carácter personal, y en la que se realizan determinadas afirmaciones e imprecisiones que, a su juicio, no son de recibo.

2.- Que en el informe de valoración del caserío se echa en falta un detalle más pormenorizado del estado actual del inmueble. A este respecto, se desconoce qué tanto por ciento de elementos estructurales habría que sustituir, o cuál es la proporción entre las reparaciones o restauraciones con respecto al valor actual de reposición del inmueble.

3.- Que el futuro uso del suelo delimitado supone la creación de un enclave en la continuidad de los suelos de titularidad privada en la vía Camino Viejos. Se afirma que en la actualidad dichos suelos se encuentran clasificados como urbanos de uso industrial, lo que conlleva que el caserío esté en régimen de fuera de ordenación expresa. No obstante, en el Avance de la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana se clasificarían como urbano no consolidados de uso residencial aptos para la recepción de 345 viviendas. Así mismo, se plantea definir un nuevo vial junto al ferrocarril y el cambio de uso del vial actual junto al río a una calle semipeatonal o paseo fluvial. Estas determinaciones pueden verse condicionadas, por ello se dice que cualquier actuación que se fuera a desarrollar cuenta con el conocimiento e intervención tanto de los redactores de la revisión como del propio Ayuntamiento.

Se solicita que, en consideración de lo alegado, se complementen los informes técnicos obrantes en el expediente con los extremos de la alegación segunda y se adopten las medidas y actuaciones necesarias en orden a lo expuesto en la alegación tercera.

A estas alegaciones cabe responder que, respecto al origen del expediente, cualquier persona está legitimada para actuar en defensa del patrimonio cultural ante las Administraciones Públicas en base al párrafo 2º del artículo 3 de la Ley 7/1990, del Patrimonio Cultural Vasco.

En cuanto a considerar como determinante un detalle más pormenorizado del estado actual del inmueble y la relación de elementos estructurales a sustituir, reparar o restaurar, hay que decir que el informe de valoración es más que suficiente y no requiere mayor grado de detalle para conseguir su objetivo, que no es otro que valorar desde el punto de vista de su interés cultural el inmueble. No es objeto, ni corresponde al presente expediente definir el estado físico o estructural del inmueble. En este sentido, el informe es más preciso y detallado de lo que se realiza habitualmente.

Por otra parte, respecto a los futuros usos del suelo, hay que decir que, al iniciar el expediente y según consulta realizada al Ayuntamiento de Llodio, el caserío no estaba en régimen de fuera de ordenación expresa; por otra parte, tampoco el alegante aporta ningún documento en tal sentido. En cualquier caso, esta circunstancia no es sustancial ni determinante para llevar a cabo la protección cultural de un inmueble. Respecto al avance de revisión del PGOU, es tan sólo un avance sin ninguna validez normativa. El futuro PGOU de Llodio deberá adaptarse para llevar a cabo la protección otorgada al inmueble y su entorno delimitado, lógicamente se condiciona el futuro planeamiento pero de una manera positiva al preservar un caserío con

beharko da. Horrenbestez, geroko antolamendu hori baldintzatzen ari gara, bai, baina era positibo batean, kultura balioa duen baserri bat babesten ari garelako. Udala, bestalde, jakinaren gainean jartzen da baserria babestearekin lotutako jarduketak guztien berri emanez, Kultura Sailaren eskumen-esparruan dagokionez.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehena.- Laudioko (Araba) Goikoetxe baserria, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenez, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

Bigarrena.- Ondasunaren deskribapen formal egitea, agindu honen II. Eranskinean agertzen den bezala eta I. Eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorriz.

Hirugarrena.- Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari Agindu honen berri ematea.

Laugarrena.- Laudioko Udalar bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitu dezan eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

Bosgarrena.- Espedienteko interesdunei, Laudioko Udalar, Arabako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari jakinaraztea.

Seigarrena.- Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Inskribatzeko den Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den eginetik izango du ondorioak.

Bigarrena.- Administrazio-bidea amaitzen duen Agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, Agindu hau azkenez argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 19an.- Kultura sailburua, MIREN AZKARATE VILLAR.

I eranskina

MUGAPENA

a) Mugapen-eremua

Mugapenak eraikina bera hartzen du alde batetik, eta, bestetik, eraikinaren ingurua. Beraz, mugapen-eremua honako muga hauek zehazten dute: iparraldean, Nerbioi ibaiaren ezkerreko ur-bazterrak; hegoaldean, trenbidearen bazterrak; ekialdean eta mendebaldean, albo-fatxadei paraleloak izan eta horietatik 20 metrora dauden bi lerrok.

b) Mugapenaren zergatia

Goikoetxe baserriaren ingurune hurbilaren ingurumen-balioei eta ikusizko balioei eusteko beharrezko kariaz proposatu da mugapen hori. Ingurunearen mugapena beharrezkoa da ondasuna behar bezala babesteko eta berreskuratzeko. Horretarako, baserriaren ondoko espazioak, espazioagatik eta funtzionaltasunagatik horri lotuak, babestu behar dira, baserriaren berezko izaera mantentzeko eta baserria berreskuratzeko espazio bat egokitzeko. Era berean, baserriaren mugapena, alde batetik, erreferente garbi batzuek zehazten dute, hala nola, Nerbioi ibaiak eta trenbideak; eta, beste alde batetik, hiri-inguruneak zehazten du.

Horregatik, mugapen honek ez du baserria bera bakarrik hartzen, aitzitik, horren ingurunea ere hartzen du.

valor cultural. Por otra parte, al Ayuntamiento se le comunican las actuaciones referentes a la protección del caserío en lo que al Departamento de Cultura le compete.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

Primero.- Inscribir el caserío Goikoetxe, sito en Llodio (Álava), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Segundo.- Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el Anexo I y en los términos expresados en el Anexo II de la presente Orden.

Tercero.- Comunicar la presente Orden al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio cultural Vasco.

Cuarto.- Instar al Ayuntamiento de Llodio para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

Quinto.- Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Llodio, a los Departamentos de Cultura, Juventud y Deportes y Urbanismo y Medio Ambiente de la Diputación Foral de Álava y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Sexto.- Publicar la presente Orden de inclusión del bien en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco en el boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Álava.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.- Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente Recurso potestativo de Reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, Recurso Contencioso-Administrativo ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de febrero de 2009.- La Consejera de Cultura, MIREN AZKARATE VILLAR.

Anexo I

DELIMITACIÓN


a) Ámbito de la delimitación

La delimitación incluye por un lado, el propio edificio en sí y, por otro, el entorno que lo rodea. Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al norte por la ribera izquierda del río Nervión, al sur por el borde del trazado ferroviario existente, al este y al oeste por una línea paralela y distante a las respectivas fachadas laterales en 20 metros.

b) Justificación de la delimitación

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno inmediato del caserío Goikoetxe. La delimitación del entorno que resulta necesario para la debida protección y puesta en valor del bien, implica la protección de los espacios adyacentes al caserío relacionados espacial y funcionalmente con el mismo, a fin de preservar el carácter propio del caserío y habilitar un espacio para su puesta en valor. Así mismo la delimitación está condicionada por una parte por unos referentes claros como el río Nervión y el trazado del ferrocarril y por otra parte por un entorno urbano.

Por ello, esta delimitación incluye no sólo la edificación del caserío propiamente dicho, sino también el entorno que la rodea.



II eranskina
DESKRIBAPENA

Goikoetxe Baserriak laukizuzen formako oina du, ia karratua. Zeramikazko teila arabiarrez egindako bi isurkiko estalkia du, gailurra luzetara jarria duena, Bide Zaharreta kalera begira dagoen fatxada nagusiarekiko perpendikularrean.

Anexo II
DESCRIPCIÓN

El Caserío Goikoetxe es un edificio de planta rectangular, casi cuadrada. Tiene cubierta de teja cerámica curva a dos aguas, con la cumbre en el sentido longitudinal, perpendicular a la fachada principal que da a la calle de Bide Zaharreta.

Harlangaitz-hormaz egina dago, errekarri proportzio handiarekin, eta zurezko bilbadurarekin (ekialdean, hegoaldean eta, batez ere, iparraldean). Horma-atalak teileriazko adreiluzkoak (lehen solairuan) eta buztinezko almaizezkoak dira (estalkipeko solairuan). Lehenengoetan, juntura horizontala nabarmentzen da, ilaren zabalera berekoa, kareorez egina. Bai eta habearen azpiko azken piezak diagonalean jarriak daudela ere.

Iparaldeko altxaeran, teilatu-hegal handia nabarmentzen da, eta horren hodieta batzuek (erdikoak eta horren eskuinaldera dagoenak) ertz alakatu zakarrak eta albo-koskadun tantakinak dituzte. Erdikoa eta horrengandik hurbilen dauden biak besoetan finkatuta daude, axiala hozka txikiz landua, zurezko ziriz ahokatua eta enarajuntura bakunaz.

Lau fatxadak aintzat hartuta, hori da era ordenatuenean osatua dagoena. Horizontalki, bi zatitan banatzen da: harlangaitz-horma zabaldun beheko solairua, eta lehen solairua eta frontoia, pixka bat atzera eramanez, bilbaduraz altxatuak eta inposta batek bananduak. Inposta hori ganbarako zoruaren euskarritzat balio duen habe horizontala ere bada. Alde garai horietan, horma-atala bistako hiru zutabe zabalek banatzen dute, zabalera berdintsuko hiru horma-arte nagusitan.

Beheko solairua harlangaitz-horma zabalez ixten da, eta sarrera nagusiaren bi aldeetan bi fatxada-bao txiki baino ez dira ikusten. Sarreran ate itsu bat dago, burdin-lanezko iltzez lotutako ohol bertikal zabalduna, eta kontraleiho asimetrikoa dauka altuera erdira.

Lehen solairuan, itxiturako hiru horma-atalek antzeko neurria dute. Karel-habeak bi zatitan banatzen du eskuineko horma-atala, ezkerretik eskuinera. Goiko zatia bost plementutan banatzen da, eta erdikoan leiho bat dago. Behekoa, ia karratuak diren lau zatitan banatzen da. Leiho baten leihoburuak zatitzen du erdiko horma-atala; bost zerrenda bertikaleko erdiko leihokoak, hain zuzen. Karga-habeak eta leiho-barrenak ezkerretik eskuinera eta hiru zatitan banatzen dute ezkerreko horma-atala; egitura perpendikularrean, berriz, horma-atala lau zatitan banatzen da. Bertan, aurrekoen antzekoak diren bi bao irekitzen dira. Egitura bi txarrantza-besok osatzen dute lehen solairuan, bat ezkerreko muturrean, eta bestea erdiko horma-atalaren eskuineko aldean.

Frontoiko zarpiatu hondatuak egituraren zati bat estaltzen du. Halere, ikus daiteke horma-arte erdian kokatutako zutiko batek banatzen duela; zutikoa inpostan oinarritzen da, eta gailurrari eusten dio. Sortutako horma-atal bakoitza beste hiru zatitan banatzen da bertikalki. Horizontalki, erdiko zutoinaren alde banatan dauden bi leihotxo karratuen leihoburuaren luzakinak eta leiho-barrenak, leiho horien ondoan, horien neurri bereko bi horma-atal marrazten dituzte, eta horietako bakoitzaren erdian hiru adreiluz egindako triangul-formako usategi bat dago. Horien gainetik, horma-atalaren zabalera osoa hartzen duten bi argi-zulo simetriko daude, triangulu forma dutenak. Ezkerreko horma-arteak erdiko frontal bat dauka, baina emokadurak ez du zurezko zutaberik bistan uzten. Horma-arte horretan, altuera erdira, beste leihotxo bat dago, lehen deskribitutakoan antzekoa. Bao guztiak kareztatutako frisoz azpatuta daude.

Hegoaldeko altxaera antzekoa da, baina konposaketa xumeagoa du. Bertan, harlangaitz-horma lehen solairuraino iristen da, eta frontoi atzera eramana mantentzen da, ganbaren zorutik bilbaduraz altxatua. Bertikalki, bistako hiru zutabe zabal eta nano bat daude. Zutiko horietako bik hiru horma-arte nagusiak zehazten dituzte. Erdikoak gailurreko habeari eusten dio. Estalkiko erdiko frontalak, alboko horma-arteetan bermatuak daudenak, ez dira zutoinetan bermatzen: ezkerreko zutoina frontalarekiko desplazatua dago, eta eskuinekoa falta da.

Sortutako horma-atal bakoitza erdiko bi edo hiru zutikok zatituta geratzen da, kokapen aleatorio batez. Eskuinekoa eta erdiko ere, horizontalalki, frontoiko bi leihotxo ertainen karga-habeak eta leiho-barrenak zatiturik gelditzen dira.

Baoak ez daude ardatz bertikalen inguruan jarriak. Beheko solairuan ukulurako sarrera bat irekitzen da, egurrezko karga-habea duena. Lehen solairuan ate bat dago; bertara, barazetik irteten den eskailera baten bidez iristen da. Horren ezkerretara, itxuraz gerora irekitako leiho bat dago. Eskuinetara, leiho itsu baten egurrezko

Está edificado en mampostería de piedra, con alta proporción de canto rodado, y entramado de madera (al este, sur y, sobre todo, al norte). Los entrepaños son de ladrillo de tejar (en planta primera) y mortero arcilloso con ripio (en planta bajo cubierta). En los primeros destaca la junta horizontal de la misma anchura que las hiladas, en argamasa, y la disposición característica en diagonal de las últimas piezas bajo las vigas.

El alzado septentrional destaca por su generoso alero, algunos de cuyos canes (el central y el contiguo a la derecha) se rematan en tosco achaflanado y goterón con muescas laterales. Se apoyan (el medio y los dos más próximos) en tornapuntas, la axial labrada con pequeñas entalladuras y encajada con pasador de madera ("ziria") y junta de golondrina simple.

Esta fachada es la más ordenadamente compuesta de las cuatro. Se divide horizontalmente en un piso bajo de grueso muro de mampostería, y una planta primera y frontón, algo retranqueados, levantados con entramado y separados entre sí por la imposta que forma la viga horizontal para apoyo del suelo del desván. En dichas zonas altas, tres gruesos pilares lígneos vistos dividen verticalmente el paño en tres crujías principales de ancho similar.

En la planta baja, cerrada por grueso muro de mampostería, sólo se abren dos pequeños huecos a ambos lados del portal central. Éste se cierra con portón ciego de anchas tablas verticales canteadas, cosidas con clavos de forja, y postigo asimétrico a media altura.

En planta primera los tres paños en que se divide el cerramiento son similares en dimensiones. El derecho queda partido horizontalmente en dos por la viga de antepecho. La parte superior se fracciona en cinco plementos, el central ocupado por una ventana. La inferior, en cuatro casi cuadrados. El paño medio lo corta el dintel de la ventana situada en la central de sus cinco franjas verticales. El izquierdo queda seccionado horizontalmente en tres tanto por el cargadero como por el alféizar, y en cuatro en sentido perpendicular. Se abren en él dos vanos similares al anterior. Completan la estructura dos jabalcones de arriostamiento en planta primera, uno en el extremo izquierdo y otro en la parte derecha del lienzo central.

En el frontón, un deteriorado raseo cubre parcialmente la estructura. Puede, no obstante, observarse que su crujía central queda, a su vez, partida por un pie derecho colocado en medio, apoyado en la imposta, para sujeción de la cumbre. Cada paño resultante se subdivide verticalmente en tres. Horizontalmente la prolongación del dintel y el alféizar de dos ventanucos cuadrados situados a uno y otro lado del poste central dibujan junto a éstos dos entrepaños de su misma dimensión a cada lado, con una palomera triangular, formada por tres ladrillos, en el centro de cada uno. Sobre ellos, en todo el ancho de paño, dos tragaluces triangulares simétricos. La crujía izquierda sostiene también una carrera intermedia, sin que el revoco permita ver pilar de madera alguno. Se abre en ella otro ventanuco a media altura, similar a los antes descritos. Todos los vanos aparecen aún recordados por una cenefa escalada.

El alzado sur es similar, aunque compositivamente más sencillo. La mampostería llega aquí a planta primera, y permanece el frontón retranqueado levantado con entramado desde el suelo del desván. Verticalmente aparecen tres gruesos pilares y un enano vistos. Dos de estos pies derechos marcan las tres crujías principales. El central sirve de apoyo a la viga de cumbre. Las carreras intermedias de cubierta que descansan sobre las crujías laterales no apoyan en poste: el izquierdo está desplazado respecto a ella y el derecho no existe.

Cada paño resultante queda partido por dos o tres pies intermedios, con un ritmo más aleatorio. Horizontalmente el derecho y el central quedan también seccionados por el cargadero y el alféizar de los dos ventanucos medios del frontón.

Los vanos no se disponen en ejes verticales. En planta baja se abre un acceso a la cuadra con su cargadero de madera. En la primera hay una puerta a la que se accede por una escalera desde la huerta. A la izquierda de ésta se dispone una ventana aparentemente abierta con posterioridad. A la derecha aparece el marco

markoa dago. Frontoian bi bao daude, bakoitza zutabearen alde banatan. Horien gainean, triangulu formako argi-zuloak daude, eta hiru adreiluz azpatutako zenbait usategi ia horma-atal guztietan.

Fatxada nagusikoaren antzeko teilatu-hegal batek estaltzen du frontoia, eta horren hodiekin (ezkerreko biak salbu) ertz alakatu zakarrak dituzte, eta (erdikoa eta horren ezkerreko hurrengoak) beso lauetan bermatzen dira.

Ekialdeko altxaeran harlangaitz-horma estalkiraino igotzen da, baina ezkerreko lehen zatian bakarrik. Gainerako bi herenak atzera eramanak geratzen dira, eta etxebizitza-solairuaren karelaren altueratik bilbaduraz altxatuak. Bertikalki, bistako zenbait zutabe daude. Horizontalki, frontalak sortutako inposta bat dago fatxada nagusiko leihoen karga-habearen altueran. Egitura eskuineko muturrean kokatutako besoak txarrantzatzen du, ertzeko zutikoari hargunea egiten dionak. Nabarmena da zutabe hori kontu handiz egin zela. Izan ere, bertan ahokatzeko zituzten, ere berean, iparraldeko eta ekialdeko fatxaden pieza diagonalak eta, bere iparraldeko aurpegian goraxeago, teilatu-hegalari eusten zion pieza, era xumean elkartuta eta enara-isats itxuran tartekatuz.

Baoak ez daude ardatz bertikalen inguruan jarriak. Beheko solairuko erdiko eta ezkerreko leihoak (leihoburua, leiho-zangoa eta harlanduxko alboak pieza batean dituztenak) eskuinerantz desplazatuak geratzen dira dagozkien lehenengo solairukoekiko (egurrezko markodunak), bata horma-atalean eta bestea bilbaduran, karga-habea frontala baino baxuxeago dutelarik. Teilatu-hegalak hegada txikiagoa du alde honetan.

Mendebaldeko altxaera harlanduzko hormaz egina dago erabat, eta horma-izaera du, ia horma itsua. Horma-atalaren erdi aldera, hormigoi armatuzko balkoia duen leiho bat dago, bai eta adreiluz eraikitako leiho bat ere (biak lehenengo solairuan, eta anilezko karez-tatze azpatuta). Horiekin batera, ukuluko argi-zuloa dago (ukuiluaren ardatzarekiko ezkerrean desplazatuta pixka bat). Horiek dira bao bakarrik. Teilatu-hegala ekialdekoaren antzekoa da, daukan ebakia salbu, balkoitik eskuinerantz; bertatik zintzilikatzen da dagoen teilatu-hodi zati bakarra.

Barnealde fatxadarekiko paraleloak diren hiru horma-arte berdinetan egituratzen da (erdikoak atari bat du beheko solairuaren mendebaldeko zati erdian), eta forjatutako fatxada horretan bermatzen dira; eta, luzetara, beste hiru horma-arte daude (erdikoa eta mendebaldekoa, ere berean, zatiturik) teilatuari eusteko. Beraz, zortzi zutiko daude solairu guztietan (petralen gurutzatze-puntuekin bat datozenak), eta bi gehiago, ertainak, ukuluan.

Beheko solairuan, fatxadarekiko paraleloa den lehenengo herena hartzen duen ezkaratz zabala dago, errekaritzeko zoru duena, luzetarako kaleak mugatzen dituzten listelekin. Horren eskuinetara hasten da bi ataleko eskailera; lehenengoa harrizko eskailera-maila handiz eraikia dago. Eskailera-buruan, harlangaitzezko horma lodiak dituen gelaxka baterako atea dago.

Aurrealdean, erdian, bi bao daude. Baoetako batek gela batera ematen du; gela horrek bigarren herenaren ekialdeko erdia hartzen du, eta bere altura guztiko egurrezko habe eta zutabeen arteko horma-atalak harrizkoak dira. Besteak ukuilurako sarrera da; horrek beste erdia hartzen du eta hirugarren horma-arte osoa, eta kanpoaldearekin zuzenean komunikatzen da, atzeko atetik.

Lehenengo solairuan, eskailera egongelara iristen da; egongela horretara ematen dute leiho nagusiak eta fatxada nagusiko leiho bikietako batek. Besteak aldameneko gela argizatzen du. Gela horren eta egongelaren artean lehenengo horma-arte osoa betetzen dute, eskailerari dagokion espazio itxia salbu; eskailera hiru ataletan igotzen da, ganbararaino.

Gela nagusi horretan, geratzen den itxuran, hiru bao daude. Horietatik, bigarren gela batera, logela nagusi batera eta korridorera sartzen da. Komunak eta ondoko sukaldeak, korridorera ematen dutenak, osatzen dute bigarren horma-artearen eremua.

Neurritz antzekoak diren hiru eremutan banatzen da hirugarrena. Erdiko eremuak, korridorearen amaieran, banaketa-lanak egiten ditu, eta bi gelara ematen du alde bietan; gainera, atzeko eskaileratik jaitzita, baratzeko atera darama. Banaketa guztietan bistako egurrezko bilbadurak daude, bai eta igeltsuz luzitutako horma-atalak ere. Sabaiak

de madera de otra, cegado. En el frontón hay dos huecos a uno y otro lado del pilar, dos tragaluces triangulares sobre ellos y varios palomeros recercados por tres ladrillos en casi todos los entrepaños.

También se cubre con un alero similar al de fachada principal, cuyos canes (salvo los dos de la izquierda) se rematan en tosco achafanado y se apoyan (el medio y el contiguo a la izquierda) en tornapuntas lisas.

El alzado este sube la mampostería hasta la cubierta sólo en el primer tramo de la izquierda. Los dos tercios restantes quedan retranqueados y levantados con entramado desde la altura del antepecho del piso vividero. Verticalmente aparecen varios pilares vistos. Horizontalmente aparece una imposta formada por la carrera a la altura del cargadero de las ventanas de fachada principal. Arriostra la estructura una tornapunta situada en el extremo derecho, que acomete al pie derecho esquintero. Este pilar destaca por su cuidada elaboración, ya que en él encajaban, a la vez, las piezas diagonales de fachada norte y este y, algo más alto por su cara septentrional, la que sujetaba el alero, con uniones sencillas de cajeadado en cola de golondrina.

Los vanos no se disponen en ejes verticales. El ventanuco central y el de la izquierda en planta baja (con dintel, jamba y laterales de sillarejo en una pieza) quedan desplazados hacia la derecha respecto a los correspondientes de planta primera (enmarcados en madera) uno en el paño de muro y el otro en el entramado, con cargadero algo más bajo que la carrera. El alero tiene un vuelo mucho menor en esta cara.

El alzado oeste está completamente realizado en mampostería y tiene carácter murario, de aspecto casi ciego. Una ventana con balcón de hormigón armado, dispuesta hacia la mitad del paño, y un ventanuco construido con ladrillo (ambos en planta primera y recercados con encalado de añil), junto con un tragaluz de la cuadra (ligeramente desplazado hacia la izquierda respecto al eje de aquél) son los únicos vanos. El alero es similar al del este, salvo por el recorte que presenta, desde el balcón hacia la derecha, en el que cuelga el único tramo de canalón existente.

El interior se estructura en tres crujeas iguales paralelas a fachada (la central con un pórtico intermedio en la mitad oeste de la planta baja), sobre la que apoyan los forjados, y otras tres en sentido longitudinal (la media y la del oeste subdivididas también) para sostener el tejado. Existen, pues, ocho pies derechos en todos los pisos (coincidiendo con los puntos de cruce de las correas) y dos más, intermedios, en la cuadra.

En planta baja el primer tercio paralelo a la fachada lo ocupa un amplio zaguán con suelo de enmorrillado con listeles que delimitan calles longitudinales. A su derecha arranca la escalera de dos tramos, el primero construido con grandes peldaños de piedra. Desde su descansillo, una puerta accede a un cuartucho de gruesas paredes de mampostería.

De frente, centrados, dos vanos dan acceso a un cuarto (que ocupa la mitad este del segundo tercio, con paredes pétreas rellenas de los entrepaños de vigas y pilares de madera en toda su altura) y a la cuadra (que abarca la otra mitad y toda la tercera crujía), comunicada directamente con el exterior por el portón trasero.

En el piso primero la escalera desemboca en la sala, a la que dan la ventana central y una de las gemelas de la fachada principal. La otra ilumina el cuarto contiguo que, junto con el salón, ocupan toda la primera crujía menos el espacio cerrado correspondiente a la escalera, que sube en tres tramos hasta el desván.

Desde esta pieza principal se accede, por tres huecos abiertos en el cerramiento restante, a un segundo cuarto, una alcoba central y el pasillo. El aseo y la cocina contigua, que dan a éste, completan el área de la segunda crujía.

La tercera se divide en tres ámbitos de dimensiones similares. El central, al final del corredor, es un distribuidor que comunica con dos cuartos a ambos lados y con la puerta que sale a la huerta, según se baja por la escalera trasera. Todas las divisiones presentan entramados vistos de madera y entrepaños enlucidos de yeso. Los

eta zoruak xumeak dira, eta bistako gapirio artean jositako tronadura zabalak dituzte. Fatxadetako itxitura-materialak barnealdetik ikus daitezke, ez baitute estaldurarik.

Estalkipeko ganbara garbia da, eta luzetara erakusten ditu bi ate nagusiak eta beste bi txikiagoak. Guztien frontalek lotura diagonal bakunak dituzte zutiko bakoitzean. Horien arteko lotura ere xumea da, egurrez ahokatzan baita material bereko kabila edo ziriz. Txarrantxa-besoak habeari hargunea egiten diote falka xumez, edo ziri eta buruxkarekin edo, eskaileratik gertuen dagoenean, enara itxura xumez. Azken lotura hori gailurraren errematean ere badago.

EUSKO JAURLARITZA

INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

1596

Ebazpena, 2009ko otsailaren 10koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Arabako Lurralde Bulegoaren Buruarena. Horren bitartez, zerrendan ageri diren finkak okupatu aurreko aktak egiteko deialdia egiten da. Berantevilla (Araba) udalerrian, Anduva-Treviño linea Olarizu-Berganza TAE linerarekin lotzeko 13,2 kV-ko airetiko linea elektrikoa, Mijancas eta Santurde herrien artean dagoena.

Energia eta Meategien Zuzendariak 2007ko azaroaren 28ean emandako Ebazpenaren bidez, goian adierazitako linea elektrikorako administrazio-baimena, egikaritze-proiektuaren onarpena eta herri-onurako izendapena eman zen. (Espediente-zenbakia: Ref. 17407-PRD-nmb ESP.01-AT-H-2007-00043).

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 57/1997 Legearen 54. artikuluan araututakoari jarraiki, Herri-onurako izendatzeak, batetik, berekin ekarriko du eragindako ondasuna okupatzeko edota eraginpean hartutako ondasunak eskuratzeko beharra. Eta, bestetik, premiazko okupazioa ekarriko du, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ondorioetarako.

Hori horrela, Lurralde Bulego honek, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan xedatutakoa betez, eraginpean hartutako ondasun eta eskubideen jabe eta titularrei Berantevillako Udaletxean biltzeko deia egitea erabaki du, bertan baitaude eraginpean hartutako ondasunak. Hartara, 52. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki, eraginpean hartutako ondasunak okupatu aurreko aktak egingo dira.

Interesdun guztiek, eta eraginpean hartutako ondasunen gainean edonolako eskubide edo interesen titularrek bertaratu beharko dute, edo, bestela, behar bezala baimendutako norbait bidaliko dute beren orde. Era berean, titulartasuna egiaztatzeko agiriak eta kontribuzioaren azken ordainagiria eraman beharko dute, eta, nahi izanez gero, Peritu batek eta Notario batek lagunduta joan ahal izango dira.

Aktak honako egun eta toki honetan egingo dira: 2008ko ekainaren 12an, 11:30etatik aurrera, Berantevillako Udaletxean. Titular bakoitzari jakinaraziko zaizkio aktak egingo diren eguna, tokia eta ordua, dagokion zitazio zedula bidaliz. Era berean, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritako gainerako argitaratzeak egingo dira.

Halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen Araudiko 56.2 artikuluan ezarritakoari jarraiki, interesdunek eta eskubide errealean edo interes ekonomikoen titular izanik argitaratutako zerrendetatik kanpo geratu direnek egoki derizkioten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, eraginpean hartutako ondasunen eta eskubideen zerrendan egindako hutsegiteak zuzentzearen. Alegazioak Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Arabako Lurralde Bulegora (Samaniego kalea 2, 01008 Vitoria-Gasteiz) bidali behar dira, idatzita, eta horretarako epea aurretiko aktak egiteko ezarritako egunean amaituko da.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 10an.– Lurralde Bulegoaren Burua, SABIN ZUGADI BARRÓN.

techos y suelos son muy sencillos, de tarima ancha cosida entre cabrios vistos. Los materiales de cerramiento de fachadas son visibles al interior, sin trasdosados.

El desván bajo la cubierta es diáfano, mostrando longitudinalmente los dos pórticos principales y los dos secundarios. Las carreras de todos presentan uniones diagonales simples sobre cada pie. El enlace de éstos es también sencillo, cajeado a cuarto de madera con clavija o "ziria" del mismo material. Los jabalcones de arriostramiento acometen a la viga en cuña simple, o con pasador y espiga o, en el caso del más próximo a la escalera, golondrina simplificada. Este último nudo aparece también en el remate de la cumbreira.

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

1596

Resolución de 10 de febrero de 2009, del Jefe de la Oficina Territorial de Álava del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, por la que se convoca para proceder al levantamiento de Actas previas a la ocupación de las fincas que se relacionan afectadas por la ejecución de línea eléctrica aérea a 13,2 KV de enlace de la línea Anduva-Treviño con la línea STR Olarizu-Berganzo, entre las localidades de Mijancas y Santurde, término municipal de Berantevilla (Álava).

Por Resolución de fecha de 28 de noviembre de 2007 del Director de Energía y Minas, se procedió a la autorización administrativa, aprobación del proyecto de ejecución y declaración de la utilidad pública de la línea eléctrica arriba referenciada, número de expediente Ref. 17407-PRD-mmb EXP.01-AT-H-2007-00043.

De conformidad con lo previsto en el artículo 54 de la Ley 54/1997, de 27 de Noviembre del Sector Eléctrico, la Declaración de utilidad pública llevará implícita en todo caso la necesidad de ocupación de los bienes o de adquisición de los derechos afectados e implicará la urgente ocupación a los efectos del artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa.

En su virtud esta Oficina Territorial, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954, ha resuelto convocar a los propietarios y titulares de bienes y derechos afectados en el Ayuntamiento de Berantevilla, donde radican parte de los bienes afectados como punto de reunión, para que de conformidad con el procedimiento que establece el artículo 52, llevar a cabo el levantamiento de las actas previas a la ocupación de los bienes afectados.

Todos los interesados, así como las personas que sean titulares de cualquier clase de derecho ó intereses sobre los bienes afectados, deberán acudir personalmente o bien representada por persona debidamente autorizada, aportando los documentos acreditativos de su titularidad y el último recibo de la contribución, pudiéndose acompañar de un Perito y un Notario, si lo estiman oportuno.

El levantamiento tendrá lugar el día 24 de marzo de 2009 a partir de las 11:30 horas, en el Ayuntamiento de Berantevilla, comunicándose a cada titular mediante el envío de cédula de citación en que se señala lugar, día y hora procediéndose así mismo a las demás publicaciones establecidas en el artículo 52 de la Ley de Expropiación Forzosa.

Asimismo de conformidad con lo dispuesto en artículo. 56.2 del Reglamento de la Ley de Expropiación Forzosa, los interesados, así como las personas que siendo titulares de derechos reales o intereses económicos que se hayan podido omitir en las relaciones publicadas, podrán formular por escrito a la Oficina Territorial de Álava del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, c/ Samaniego 2, 01008 Vitoria-Gasteiz, hasta el día señalado para el levantamiento de las actas previas, cuantas alegaciones estimen oportunas a los efectos de subsanar los posibles errores en que se haya podido incidir al relacionar los bienes y derechos que se afectan.

Vitoria-Gasteiz, a 10 de febrero de 2009.– El Jefe de la Oficina Territorial, SABIN ZUGADI BARRÓN.